Los dos están ya fallecidos, uno hace ya bastantes años y el otro no hace tanto, y por eso no los nombro, pero los dos eran muy conocidos. El de Zumarraga, sobre todo, más que conocido, era hasta famoso. El caso es que participaban en el Alarde aunque ninguno de los dos fuera de Irún ni viviera allí; a lo mejor, digo yo, tendrían parientes o amigos que les habían invitado... No lo sé.

En fin. La cuestión es que detrás de los del desfile nosotras también subimos a San Marcial, donde había un gentío terrible, y entre tanto caballo, tantas cantineras y tanta historia, tampoco es que haya mucho sitio para tanta gente que se junta allá. Nos lo pasamos bien, que es de lo que se trataba, aunque luego ya, pasadas las primeras horas de la mañana, también pasamos mucho calor, hasta que por la tarde nos marchamos a Hondarribia.

Resumiendo, el Alarde —porque entonces solo había uno— nos pareció una fiesta muy bonita, pero desde entonces, después de ver lo que vimos, cada vez que oigo hablar de los problemas que hay sobre si toman parte solo los hombres o si participan también las mujeres, me pregunto cómo es posible

que los hombres de fuera de Irún puedan participar, y las mujeres irundarras no.



La fotografía está sacada delante del Casino Recreativo de Beasain. No conozco a nadie, pero debe de ser de hacia principios de los años treinta.

Bueno, y ya acabo. Ya veis cómo andábamos de un lado para otro. Pero no sé si os habréis dado cuenta de que ni he nombrado el medio de transporte que hoy es el más utilizado: ¡el coche! Y eso, ¿por qué? Pues sencillamente, porque entonces se veían pocos y poca gente lo usaba. Pero de todas maneras, para que no falte también la foto de un coche, y de paso los más jóvenes se den cuenta de la «abundancia» de coches que había y de lo poco que llamaban la atención, también incluyo al final una foto que está sacada, precisamente, delante del sitio donde tenía la salida la Vuelta a la Costa en bici de la que antes he hablado, es decir, delante del Casino. Eso sí, esta foto es bastante más antigua que las anteriores, y como no recuerdo haberla visto publicada en ningún sitio, pues ahí va. Por cierto, para quien no las haya conocido, a la derecha de la foto se ve parte de las «piezas» y terrenos que había más o menos en donde hoy está la calle Esteban Lasa.

Y nada más. Terminó deseando a todos, pero sobre todo a los jóvenes, que paséis unas felices fiestas.



J.O.M.

# Mutur beltz eguna: ginena gogoratuz, garena errotuz



**Beasaino Udala**

Igartzako Kultur Mahaia 2013ko urrian ekin zion bere ibilbideari. Alde batetik, Igartzaren norabidea ezartzen laguntzeko eta, bestetik, herriko kulturgintza sartzeko eta indartzeko helburuekin eratutako Mahaia da hau. Bertatik sortutako ideia da beasaindarron historian, ezaugarrietan eta nortasunean ardatza izango duen jai egun bat egonkortzea. Eta horrela sortutakoa da Mutur Beltz Eguna; 2014koa trenbide linea inauguratu zeneko 150. urteurrenaren bueltakoa izan zen.

Trena eta trenbidea Beasainen ikurretako bi izateaz gain, bere historian arlo ezberdinetan eragin duten elementuak dira: industrian, soziologian, hizkuntzan, ekonomian eta abar. Horregatik, esan daiteke, beasaindarron identitatean bere aztarnak utzi dituzten gaiak direla. 1864an, Madril-Irun trenbidearen linea osoa inauguratu zen eta irekita gelditu zen, Beasain eta Altsasu lotzen zituen bide zatirik zailenean lanak amaitu eta gero. Beraz, 2014an 150 urte. Gainera, sarri



ahazten badugu ere, trenak eta trenbideak gure aspaldiko historiarekin lotzen gaituzte zuzenean, horiek izateko Igartzako gunearen industria-jarduna eta, bereziki, burdinolarena ibilbidea ezinbestekoa izan baitzen.

Igartzako Kultur Mahaia gogoratzeko moduko gertakizuna zela erabaki zuen eta, bide batez, aukera ematen zuela gure izatean, gure nortasunean eta gure historian murgiltzeko. Azken batean, gure herriko lehengo biztanleez eta bizimoduaz oroitzeko.

Eta horrela adostu zen beasaindarron jai egun finko bat ezartzea egutegian eta urtero gure nortasuna gogoratzea. Iraileko azken larunbata hautatu zen eta Mutur Beltz Eguna deitu zitzaion, trenaren eta trenbidearen inguruko langintzetan eguna zikinduta bukatzen zuten langileen omenez.

Egitaraua osatzeko, antolatzeko eta aurrera ateratzeko aurrekontua guztiz mugatua izan



zuen Igartzako Kultur Mahaiak. Baina iazko Mutur Beltz Egunak ikasgai handia eman zigun denoi: ilusioa, gogoia eta elkarlana izanez gero, diru askorik ez dela behar ekimen ederrak burutzeko. Kultur Mahaiko parte hartzaile guztien borondatea eta laguntza izan ziren Mutur Beltz Egunaren lokomotora eta tren horretara herritar asko eta asko igo ziren.

Izan ere, guztion moduko egitaraua lotzea lortu zen, era guztietako ekimenez osatua eta zenbait egunetan zehar luzatu zena: Mutur Beltz pintxoen aurkezpena, trikitixa eta kantua, trenaren inguruko erakusketa eta hitzaldia, bertso-desafioa, herri-proba, erromeria, herri-afaria, trenean bidaia gidatua. Irailaren 27 arratsaldean, larunbatean, Gernika pasealekua modu berezian girotu zen bai haurrentzat eta bai helduentzat, herritarrentzat eta bisitariarentzat.

Orain, 2015eko Mutur Beltz Eguna aurrera ateratzea tokatzen zaigu. Aurtengoa

hiribildu titulua eskuratu zeneko 400 urteurrenari buruzko ekimenekin osatuko dugu, urte osoan zehar luzatzen ari diren bestelako ospakizunekin batera, Beasaingo udalerraren 400 urteak festa eta oroimen ekintza bihurtuz. Trenarena bezala, hau ere beasaindarron historian epemuga oso garrantzitsua da eta garai hartako beasaindarrak gogoratzera eta eskertzerara eramanez behar

gaitu, iaz bezala, "ginena gogoratu, garena errotuz". Irailaren 26a izango da eguna eta 2014koa bezala, guztion borondatearekin eta elkarlanarekin egingo dugu 2015ekoa ere.

Lerro hauetatik eta Igartzako Kultur Mahaiaren izenean, Beasaingo Udaleko Kultura eta Euskara Sailak 2015eko Mutur Beltz Egunean parte hartzerara eta festa giroan ospatzera gonbidatzen zaituzte. Eta bide batez, Kultur Mahaiko hite izatera ere bai, herriko kulturgintzan kezka, arduraren eta interesa duzuen neurrian.



**Oriako Pasealekua 12, 2. D**  
**20200 Beasain (Gipuzkoa)**  
**605 77 47 82**

**Raúl Bonilla**



# CAF, el salto tecnológico

Uno a veces duda sobre la palabra a elegir para definir algún hecho. En este caso de CAF la duda era sobre si elegir evolución, progresión o salto y me he decantado por salto porque en la tecnología de CAF se ha producido un salto cualitativo, se ha pasado a una fase en la que en el mundo del ferrocarril somos casi capaces de hacer de todo lo que está relacionado con el negocio y los sistemas ferroviarios. Trenes de ancho variable, trenes de alta velocidad de 350 Km/h con tecnología propia, metros sin conductor automatizados, sistemas de señalización, de electrificación, de subestaciones, de operación de líneas de viajeros... en definitiva de proyectos integrales de sistemas ferroviarios que nos permiten hoy acceder a licitaciones y adjudicaciones internacionales de proyectos llave en mano algo impensable hace ahora dos décadas. De aquel SIMAFE de antaño, pionero servicio de investigación de CAF de sus comienzos, que ha sido la palanca inicial que ha multiplicado el potencial investigador de la empresa, hasta la imponente realidad tecnológica del momento actual.

Por eso de vez en cuando es interesante mirar hacia atrás para saber de dónde venimos, donde estamos y adónde vamos y compararnos con nosotros mismos y con los demás en un período de tiempo suficientemente extenso como para saber si hemos avanzado lo suficiente o nos queda mucho camino por recorrer para llegar a un estadio suficientemente competitivo que permita mantenernos dignamente en los mercados internacionales con un adecuado desarrollo tecnológico propio que en los últimos años ha sido intenso, rápido y brillante y entendiendo este proceso, como no puede ser de otra manera, de una manera dinámica y permanente porque en el campo

de la investigación, y utilizando el símil de la bicicleta, si te paras te caes.

Y creo que la respuesta es que en el apartado del desarrollo tecnológico propio de CAF las cosas se han hecho muy bien. Y quienes hemos vivido de cerca todo este proceso podemos dar fe de ello. Era hace ahora unos veinte años y más o menos coincidiendo con la época del comienzo del plan de participación, que se planteó en toda su dimensión la necesidad de iniciar el proceso de desarrollo de una tecnología propia para fabricar nuestros propios equipos de tracción. Palabras mayores para la época y reto para auténticos gigantes.

Uno recuerda cuando allá por las décadas de los 1990 y primera mitad de los años 2.000 dependíamos tecnológicamente de los grandes del sector, Alstom, Siemens, Bombardier, Mitsubishi, por citar solo a los más potentes y conocidos, para el suministro de los equipos de tracción de los trenes. Nuestra dependencia de ellos en esta materia era total. Dependencia tecnológica que suponía que debíamos ir a las licitaciones con equipos ajenos, por los que nos cobraban, por decirlo de una manera que se entienda, lo que querían, y además los equipos de tracción que incorporan el mayor contenido tecnológico de los trenes suponían también la mayor parte del coste de los mismos. Con la dependencia tecnológica no podíamos ir a las licitaciones autónomamente, ni con nuestros productos ni con nuestros precios, con todas las limitaciones que esto suponía para participar en las licitaciones nacionales e internacionales. Siempre había que incluir en las ofertas los precios que los fabricantes y suministradores de los equipos de tracción, que no sin negociación, nos presentaban.

Pero esta situación empezó a cambiar cuando se adopta la decisión de desarrollar un convertidor de tracción propio. En aquel momento aquello no pasaba de ser un deseo y una necesidad imperiosa para la supervivencia de CAF y de la que éramos muy conscientes que había que satisfacer para estar en el mercado en condiciones de competir. Y tras apostar a fondo por ello en pocos años el convertidor de tracción de CAF era ya una realidad.

A partir de la consecución de ese hito fundamental el desarrollo de estos productos alcanzó mayor velocidad y complejidad creando las filiales que los impulsaban de manera específica.

Y tomo algunos importantes hitos alcanzados por CAF para intentar describir de una manera sucinta y lo más comprensible posible los desarrollos tecnológicos más punteros y representativos que CAF ha alcanzado a través de sus filiales tecnológicas a lo largo de los últimos años. Si el lector no está familiarizado con los aspectos técnicos que siguen en las próximas tres hojas puede saltárselas para aterrizar en las tres últimas páginas.



## EQUIPOS DE TRACCIÓN

Se creó CAF Power & Automation que diseña y fabrica equipos de tracción eléctricos para todo tipo de trenes, para metros, unidades de cercanías, tranvías, trenes de Alta Velocidad, etc.

CAF también dispone de modernos laboratorios para investigar nuevas

soluciones y probar los equipos que diseña. La actual gama de productos consta de:

Convertidores de tracción de 750 VDC, 1500 VDC, 3000 VDC y 25 Kvac.

Electrónica de Control que supone una fácil integración del convertidor de tracción en el tren.

Estrategia de Control con desarrollo óptimo de algoritmos de control con el objetivo de maximizar la eficiencia del sistema.

Y lo más importante, que CAF suministra ya "llave en mano" toda la cadena de tracción.



## SEÑALIZACIÓN

La tecnología de señalización lograda por CAF es otro hito fundamental para poder estar en los mercados internacionales con un producto de altísimo valor añadido que permite complementar las ofertas de productos tradicionales para poder optar a licitaciones llave en mano en diversos mercados ferroviarios. El desarrollo tecnológico de CAF en este campo se puede sintetizar así:

CAF, a través de su filial CAF Signalling, cuenta con sistemas integrales de señalización ferroviaria.

Todas sus soluciones y el abanico de familias de productos se basan en desarrollos propios. Estas soluciones han sido desarrolladas, probadas, testadas e instaladas en líneas de múltiples clientes en el mundo y en España.

CAF Signalling cuenta tanto con enclavamientos, desarrollados bajo las normas CENELEC y que hoy en día cuentan con referencias en España tanto en ADIF como en FEVE, en Chile, Egipto, Turquía, etc. y con otros múltiples proyectos en fase de ejecución.

Igualmente los centros de control de tráfico

centralizado, con los cuales se supervisan y mandan líneas completas de ferrocarril contando con numerosas referencias en ADIF en España, como en EFE en Chile, ENR en Egipto, etc.

Otra línea de producto y familia de soluciones es la que alberga todos los telemandos de energía, consiguiendo todo el mando y el control de la catenaria y de las subestaciones de las líneas ferroviarias siendo en España el mayor suministrador de ADIF y también con numerosas referencias en metros del mundo como pueda ser Metro Madrid, Metro Delhi, Metro Valparaíso, línea Shibin Kaliub en Egipto, etc...



### **EQUIPOS EMBARCADOS**

Asimismo, CAF completa su oferta de señalización con equipos embarcados gracias a CAF Signalling. En cuanto a equipos de señalización a bordo, el Grupo CAF se halla en proceso de desarrollo de un equipo embarcado ERTMS nivel 1 y 2.

### **CONTROL DE TREN Y COMUNICACIÓN**

CAF Power & Automation, del grupo CAF, provee soluciones electrónicas para sistemas de información y comunicaciones en el sector ferroviario.

### **MANTENIMIENTO**

CAF posee una filial especializada en Ingeniería de Mantenimiento.

La gestión de las actividades de mantenimiento es muy exigente y requiere un planteamiento cuidadoso y especializado para atender las altas expectativas de las entidades que desean alcanzar la excelencia. Para conseguirlo, NEM Solutions ha generado un paquete de soluciones basadas en el servicio, denominado AURA, que se adapta a

las distintas necesidades.

AURA consta de distintos módulos para proporcionar a cada agente de mantenimiento, explotación o usuario final una flexibilidad total de la configuración del servicio.

Maximización de las prestaciones y de la vida de elementos lubricados mediante el diagnóstico y prognosis con muestras de lubricante y el control del historial de servicio.

Sistema de gestión de alarmas que asegura que la persona idónea reciba la información relevante en el momento oportuno. Esta aplicación de tiempo real se implementa con el módulo de diagnóstico de Aura o sistemas de tipo HMI y SCADA, y categoriza y agrupa las alarmas individuales y secuencias de alarmas para una visualización y comunicación eficaz basada en web.

Sistemas de medición del perfil de rueda y detección de defectos, empleando tecnología de visión artificial y análisis de aceleración, soportados con tecnología (RFID). No se requiere obra civil para la instalación. Opera con el vehículo en marcha, existiendo también una versión portátil. Los perfiles de rueda se proporcionan en 2D, altura de pestaña (H), anchura de pestaña (G) y gradiente de pestaña (qR).

Análisis en tiempo real, informes y predicción del estado de salud de los activos. Los módulos de inteligencia artificial proporcionan avisos tempranos de degradación, alertas de comportamientos inesperados de los subsistemas, y gestión global de flotas a distancia.

Actualización automática de los planes de mantenimiento de acuerdo con posibles restricciones existentes para el mantenimiento correctivo y la disponibilidad de recursos. Establecimiento de objetivos de rendimiento comercial para generar una planificación efectiva y eficaz a largo y corto plazo de las actividades de mantenimiento preventivo y correctivo.

La combinación de los datos y el conocimiento de los sistemas de distintas fuentes se traduce en una asistencia centralizada basada en web para la gestión completa de los programas de mantenimiento de ruedas y ejes montados. Análisis detallado del desgaste de los perfiles de ruedas y generación de la planificación de mantenimiento.



### TECNOLOGÍAS DE ENSAYO

CAF posee instalaciones, bancos de ensayo, equipos y personal humano capaz de realizar una gran variedad de ensayos relativos a la verificación de nuevos diseños y a la homologación de nuevos vehículos.

Del mismo modo y en relación a los ensayos, CAF puede realizar actividades de ensayo y análisis para la resolución de incidencias durante toda la vida del vehículo, si así es requerido. El amplio espectro de ensayos abarca tanto vehículos de pasajeros como de mercancías y se puede dividir en ensayos estructurales y de fatiga, ensayos dinámicos y compatibilidad electromagnética.

### ERTMS

**El ERTMS, European Rail Traffic Management System, es el sistema europeo de gestión de la circulación de trenes**, resultado de la unión de dos sistemas complejos, el de control ferroviario ETCS, European Train Control System, y el GSM-R, derivación ferroviaria del estándar civil de telecomunicaciones GSM. Su objetivo es estandarizar los sistemas de señalización a nivel de Europa ya que la diversidad actual es un fuerte freno a la interoperabilidad.

Este sistema no solo se viene aplicando en Europa sino en todo el mundo ya que es el primer sistema estandarizado, lo que permite compatibilidad entre diferentes fabricantes

del producto.

CAF ya ha ejecutado **proyectos de señalización ERTMS-vía**, tras la homologación Europea alcanzada en 2012, lo que ha hecho posible que se incorpore como miembro de pleno derecho en UNISIG, agrupación que reúne a los pocos suministradores existentes de esta avanzada tecnología.



También hay que señalar aquí el **programa europeo "Shift2rail"**, dotado de un ambicioso presupuesto para la innovación tecnológica sectorial y en el que CAF participa como socio fundador y que contribuirá sensiblemente a la financiación de la investigación y la innovación en el campo ferroviario.

### PROYECTO ROSAE, EL ERTMS DE CAF

Dentro del transporte ferroviario, la señalización ferroviaria, se considera el **máximo exponente de los sistemas de seguridad crítica**. Un sistema crítico (SIL 4) se refiere a un sistema, que en caso de fallar o dejar de funcionar, puede provocar consecuencias muy negativas: no sólo implica la pérdida económica, sino que pone en peligro muchas vidas humanas.

Los sistemas de señalización ferroviarios son aquellos que permiten la **comunicación bidireccional entre el tren y la infraestructura** y realizan un control seguro del tráfico; básicamente evitan que los trenes colisionen. Cada país ha tenido su propio sistema o sistemas de señalización y esto se ha convertido en problema para los servicios internacionales.

Y para quien no esté en una onda próxima al significado de estos conceptos sobre el sistema ERTMS, señalarle que este sistema está relacionado con el que falló o no funcionó adecuadamente por razones aún no esclarecidas en el trágico accidente de Santiago de Compostela en Julio de 2.013 en un tren Talgo-Bombardier.

### **SCIE, SISTEMA DE CAPTACIÓN INFERIOR DE ENERGÍA, EL TRANVÍA SIN CATENARIA**

En la actualidad existe una tendencia creciente de implantar **medios de transporte eficientes y respetuosos con el medio ambiente**, tratando a su vez de cuidar la estética de las ciudades.

Para dar respuesta a esta necesidad, CAF, en los tranvías de la familia Urbos puede incorporar un **sistema de acumulación de energía de tecnología propia**, ACR, que, cargándose parcialmente durante el frenado y por completo en las paradas, les permite ahorrar energía y adicionalmente proporcionar la energía necesaria para realizar el trayecto entre estaciones sin toma desde catenaria. Mediante el uso de regeneración y acumulación de energía, **los tranvías de CAF pueden circular sin catenaria** por los centros de las ciudades, donde la eliminación de este elemento está siendo cada vez más habitual.

En los tranvías de CAF la carga del ACR se realiza en las paradas **mediante un sistema de catenaria o un carril inferior de carga rápida**, SCIE, utilizado cuando el cliente no desea ningún tipo de toma superior en las paradas. La operación de carga, de duración 20 segundos, se realiza al mismo tiempo que los pasajeros suben y bajan del vehículo, sin interferir por lo tanto en los tiempos de operación.

El Sistema SCIE es fruto de un **desarrollo conjunto de CAF I+D, CAF TE y CAF** realizado entre 2010 y 2012 y cuya primera implantación en servicio de pasajeros se realizó en Zaragoza en Noviembre de 2012, tras haber pasado con éxito los más estrictos controles de seguridad en funcionamiento requeridos por las autoridades correspondientes.



### **A MODO DE VALORACIÓN**

Si el lector ha tenido la paciencia de llegar hasta aquí le diré que lo anteriormente expuesto es tan solo una breve descripción de algunos de los avances tecnológicos más significativos de CAF porque intentar explicar de una manera mínimamente exhaustiva el trabajo realizado en este campo por la empresa requeriría cuando menos escribir un voluminoso libro porque es imposible condensarlo y resumirlo todo en un artículo, razón por la que he dejado voluntariamente en el tintero otros numerosos logros tecnológicos de la empresa para no alargarlo más.

Y hay que recalcar que todo lo anterior, que para el profano representa una jerga técnica bastante ininteligible y probablemente un rollo difícil de digerir, objetivamente es un salto cualitativo fundamental de la tecnología de CAF que le permite estar a la altura de los gigantes tecnológicos del ramo compitiendo con ellos con bastantes posibilidades de éxito en los mercados internacionales de la más alta exigencia.

A veces nos solemos autoflagelar con actitudes bastante autocríticas para con nosotros mismos, adobadas de un cierto punto de inconformismo y ansiedad pero que sin embargo son importantes cualidades para no dormirnos en los laureles y reflexionar sobre las cosas mal hechas y mejorarlas y que son cualidades necesarias para la adaptación y la supervivencia en los mercados, pero a la par, y sin caer en la autocomplacencia corrosiva, también es importante que reconozcamos y seamos conscientes de que se han hecho bien las cosas, muy bien diría yo, en este campo,


y que tenemos que profundizar en esta vía del desarrollo tecnológico como uno de los factores fundamentales de la competitividad de CAF.

Y es que cuando uno se pone a pensar que hace veinte años jugábamos en la tercera división tecnológica y hoy estamos llegando a la altura de los auténticos buques insignia de las naciones tecnológicamente más avanzadas en materia de transporte ferroviario y que además son las marcas-país de estados como Alemania con Siemens, Francia con Alstom, Canadá con Bombardier, Japón con Mitsubishi y los nuevos players chinos como CNR y CSR que se van a fusionar y Hyundai, nuevos gigantes que van a por todas, uno es consciente del enorme mérito de haber alcanzado en algunas facetas un nivel tecnológico similar a los anteriores, en definitiva de haber alcanzado la primera división tecnológica, de haber alcanzado el nivel tecnológico de estas grandes corporaciones en un período de dos décadas y a una increíble velocidad y todo ello de una manera discreta, humilde y sin alharacas.

El tiempo que nos ha costado a nosotros ponernos a su altura y el que han invertido nuestros competidores potenciados y apoyados por sus potentes estados-nación revela el titánico esfuerzo de actualización tecnológica realizado por CAF. Porque si cuantitativamente estas grandes corporaciones son muy superiores a nosotros porque nuestro tamaño comparado

con ellos es pequeño, cualitativamente ahora mismo no desmerecemos en absoluto de ellos, un enorme gap inicial que hemos conseguido reducir a un hueco razonable en un período muy corto de tiempo. Y si hubiera que representar este hecho y este esfuerzo sostenido en investigación y desarrollo mediante una curva, la pendiente de la curva de CAF en desarrollo tecnológico seguramente que estaría por encima de la mayoría de sus competidores.

Y lo que todavía es más importante, con la convicción de que en el futuro aún disponemos de un gran recorrido para la mejora y no solo en el apartado tecnológico sino también en materia organizativa y de gestión porque ser pequeños pero con suficiente masa crítica también permite ser más ágiles y eficientes con mayor maniobrabilidad. Lo que ocurre es que esta es una carrera de resistencia y velocidad que no te permite dormirte en los laureles ni por un momento porque un alto ritmo y velocidad en la implantación de innovaciones tecnológicas para los clientes es lo que te permite adquirir ventajas competitivas en relación a la competencia, es decir un intenso proceso continuo de mejora tecnológica para penetrar en los huecos dejados por los competidores por sus ineficiencias que por supuesto también las tienen. Pero aunque la mejora tecnológica es condición necesaria no es condición suficiente porque la competitividad en precios obliga a una mejora equivalente en la gestión y en la obtención de resultados positivos en cada



proyecto. Los competidores tradicionales y los nuevos competidores orientales ponen cada vez mayor presión a las licitaciones y en esas condiciones cada vez más exigentes tenemos que desenvolvernos con éxito.

Y para terminar vamos a elucubrar un poco. Si hiciésemos un ejercicio de suposiciones, una imaginaria lectura de lo que hubiera podido ocurrir y como serían las cosas ahora si no hubiese habido una decidida apuesta por el desarrollo tecnológico en CAF ¿Qué podríamos decir?

La respuesta a esta cuestión creo que es bastante clara y que todo el mundo, al menos de una manera intuitiva, la conoce. En el mejor de los casos, y aún contando con el control accionarial de trabajadores y Kutxabank, estaríamos en una posición tecnológica absolutamente subordinada y a merced de terceros y ahora seguramente no pasaríamos de ser un mero apéndice teledirigido de algún grande del sector. Y eso siendo optimistas.

Y es que desarrollar un empuje tecnológico tan intenso y eficaz en un tiempo récord es uno de los mayores aciertos de la estrategia de CAF que ha redundado en el mantenimiento de un empleo de calidad. Y hoy en día, en una época de escasez de trabajo y de grandes incertidumbres, los héroes, al menos algunos de ellos, son quienes han sido capaces de adaptar sus empresas a los nuevos tiempos para mantener y si es posible crear nuevo empleo. Y quienes desarrollan esta función

social tan esencial deberían gozar de un amplio reconocimiento de la sociedad.

Y a no olvidar tampoco que junto a la tecnología juega un papel esencial desarrollar cada vez mayores niveles de eficiencia organizativa y de gestión porque los nuevos constructores orientales ya incorporan las nuevas tecnologías amén de unos costes que amenazan con desplazar de los mercados a los fabricantes tradicionales. Los constructores orientales como CRCC, HYUNDAI, Hitachi/Kawasaki y otros están consiguiendo cada vez más cuota de un mercado que tradicionalmente ha estado reservado a otros competidores.

Y en Euskal Herría se creará empleo si sus empresas son intensivas en tecnología para generar productos de alto valor añadido que les permitan ser competitivas y exportar cada vez más como es el caso concreto de CAF que exporta más de un 80% de su producción. Y este y no otro es el camino que nos va a permitir crear empleo y mejorar la cohesión social.



ANDONI LEONE

Guardi Jatetxea Polígono Guardi, Ed Servicios Local 1 · C.P. 20213 · Idiazabal tlf. 943 801 918 · guardijatetxea.com

# Trenak ekarriak eta eramaneanak

1864-08-15ean inauguratu zen ofizialki eta ospe handiz Madriletik Pariserako trenbidea<sup>1</sup> eta egun hartan zeharkatu zuen Beasain alderik alde lehenengo aldiz trenak. Ordurako trena ezagutu berria zuten Beasainen 1963an Donostia eta Beasain arteko tren zerbitzua ezarri zenetik, baina 1964an Beasain eta Altsasu arteko zatia bukatu eta inauguratu ondoren, gure bi estatu menderatzaileen metropoliak, Paris eta Madril, trenbidez elkarlotuta gelditu ziren eta horrek izan zuen sona eta garrantzia.

Trenbideak zeharkatzeak eta trenak harantz honantz abian jartzeak, izugarritzko eragina izan zuen Euskal Herrian, baina trenbidea pasatu zen herri batzuetan eragin berezia izan zuen eta horietako bat izan zen Beasain.



Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intza geltokian bidaian abiatu aurretik (2014-09-28an).

Gertakizun horren 150. urteurrena 2014an betetzen zela eta, ia hilero Igartzan bildu ohi diren Beasaingo Kultur mahaiko kideek, herriko elkarte eta eragile desberdinekin batera, Mutur Beltz Eguna antolatu zuten

<sup>1</sup> Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intza. "Norteko Trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan." I. liburukia, 18. or.; 2006. Mitxelena Arte Grafikoak. Astigarraga (Gipuzkoa).

2014ko irailaren 27rako eta Beasain-Altsasu-Beasain tren ibilaldia 28rako. Irailaren 27 arratsalderako antolatutako egitarauak, egia esan, 186Ora arteko Beasaingo herri euskaldunaren jitea izan zuen oro har eta gehienbat. Josetxo Zufiaurreren eta Martin Garciaeren pregoia (honena espainieraz izan zen), bertsolarien jarduna, herri kirolen erakustaldia modu didaktikoan Iñaki Perurenak oso ondo azalduta, trikitilariak, sagardo kupela kaleetan zehar beren beregiko gurdian, herritarrak euskal janzkera zaharrez jantziak eta afaria. Eta egia esan, 150 urte hauetan Beasainen euskaldunek jasanak jasan ondoren, hori eskertzekoa da.

Biharamunean, 28an, Beasain-Altsasu-Beasain ibilbidea egin zen trenez (3 € ordainduta) eta Beasaingo eta inguruko ehunka pertsonak ongi bete zituzten ADIFek jarritako tren unitateak. Bidaia burutu bitartean, trenbidearen azalpenak eman zituzten Pello Joxe Aranburuk eta Luis Mari Intzak, Jose Luis Etxezarretak gidatutako elkarrizketen bidez. Jardunak euskaraz eta espainieraz izan ziren. Ormaiztegin zubi berrian geldituta egon zen trena eta zubi zahar nahiz berriaren historiak kontatu ziren. Oazurtzako tunela (3 km) oso astiro igaro zen eta Altsasun, ia zerbitzurik gabe topatu genuen garai bateko geltoki handi, bikain eta garrantzitsua. Nonbait errepideak eta gasolindegiek jan diote lehia. Horiek izan ziren nagusiki irailko ospakizunak.

Baina pregoietan, hitzaldietan eta beste gisako aipamenetan, trenbideak eta azpiegitura horrek lagundutako industrietan ekarritakotzat aipatutakoan artean, gehienbat behintzat, aurrerapena, ekonomiaren bulkada, garai aldaketa, teknologia berrien etorrera eta beste hainbat horrelako izan dira.



Muturbeltz egunean, erraldoiak eta herritarrek Barrendain plazan, geltoki aurrean, eta Zufiaurre eta Garcia balkoian pregoia irakurtzeko prest (2014-09-27an).

Nik ez dut hori dena eta gehiago ere zalantzan jarriko, ukaezina baita hein batean, baina gaurkoan horiekin batera gehienetan aipatzen ez diren orduko Euskal Herriko eta kasu honetan bereziki Beasaingo gizarte, kultura, hizkuntza, ekonomia, ohitura eta gisakoekin zer gertatu zen gutxienez ere aipatu nahi nuke, gaur egungo beasaingarrek, gazteenek bereziki, trenbideak eta trenek zer ekarri ziguten eta zer eraman ziguten garbi ikus dezaten, eta gustuko izango nuke, norbaitek, ondoren aipatuko ditudan gaiak gehiago sakondu eta egunen batean tesiren bat euskaraz egitea ere.

Trenegindako bidaian orritxo batzuek banatu ziren eta datu batzuek zetozen bertan laburbilduta. Agertzen zen datu adierazgarri bat hauxe zen: trena iritsi aurretik, 1.000 tonako karga Donostiatik Ormaiztegira edo alderantziz garraiatzeko, 100 gurdik (bakoitzeko idi pare erabilia), egun osoa behar zuten; 1864an, tren batek ordubetea garraia zitzakeen 1.000 tona ibilbide berean. Iraultza, noski, bistakoa da.

Aranburuk eta Intzak egindako liburuetan, argi eta garbi azaltzen dira trenbidearen kostuak. Otsaurtetik Aramarako zatiaren (41 km) behin behineko aurrekontua, 85 milioi errealekoa izan zen eta Aramatik Irunako zatiarena (55 km), 59 milioi errealekoa.<sup>2</sup> Kostu horiek ordaintzeko inbertsioak nortzuk egin zituzten ere garbi agertzen da. Horretarako interesik handiena nortzuk izan zuten eta

<sup>2</sup> Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intza. "Norteko Trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan." II. liburukia, 37-41. or.; 2008. Mitxelena Arte Grafikoa. Astigarraga (Gipuzkoa).

kapitala nola bildu zuten ere argi eta garbi azaltzen da aipatutako liburu marduletan eta bidenabar esan, Gipuzkoako erakundeek eta jendeak (trenbidea pasatu zen eskualdeetakoek eta baita pasatu ez zenekoetakoek ere) diru asko jarri zuela bere sakelatik azpiegitura hori burutzeko. Akzioek etekina izango zutela uste izan zen, nahiz eta gero, dirudienez, hainbeste etekin ez lortu.

Zalantzarik ez dago noski, iraultza ikaragarria ekarri zuela trenbideak Euskal Herrira eta Beasaina eta ez garraio baliabideetan soilik, bizimoduaren eta sozioekonomiaren arlo guztietan baizik. Eta hain zuzen ere orduko

Beasaingo gizarte euskaldun eta nagusiki nekazaritza eta artisautzatik bizi zen hari, bat batean eta bortizki bere ekosistema guztia aldatu zion eta hori ondoren aipatuko ditudanek argi eta garbi erakusten dute.

**1. Biztanlegoa.** Beasaingo biztanleen bilakaera honako hau izan zen 1787tik 1981era<sup>3</sup>.

Urteak	1787	1860	1900	1930
<b>Biztanleak</b>	1.023	1.448	<b>1.932</b>	<b>5.260</b>

1940	1945	1950	1955	1960
4.986	5.230	5.423	5.767	<b>7.689</b>

1965	1970	1975	1981
<b>8.688</b>	<b>10.095</b>	10.951	<b>12.111</b>



Ormaiztegiko zubi zaharra eta berria (2014-09-28an).

<sup>3</sup> Astigarreta 1929ra arte eta Arriaran 1927ra arte, aparteko udalerririk ziren, beraz, ez ziren sartzen Beasaingo erroldetan.

Trenbidea egin zenean 1.500 biztanlera ez zen iristen Beasain (Arriaran eta Astigarreta ez zeuden Beasainen sartuta) eta aurreko 73 urteetan 425 biztanleko hazkuntza (%41,54koa) izana zen. 1860an gainera, "Fábrica de Hierros de San Martín de Urbietá" (gero CAF izatera iritsi dena) sortu zen eta bi gertakari horiek, 40 urtetan zehar, beste 484 biztanleko hazkuntza (%33,43koa) ekarri zioten herriari. Hori ez zen hain neurritz kanpokoa izan eta, gainera, kanpotik etorriak, eskualdekoak eta gipuzkoarrak izan ziren nagusiki, arabar eta nafar batzuek ere etorri arren.

Baina hurrengo 30 urteetan (1900-1930) 5.260 biztanle izatera pasatu zen Beasain, 1860ko populazioa, 60 urtetan zehar %363 eta azken 30 urtetan soilik %272 handituta. Urte horietan, arabar eta nafar gehiago etortzeaz gainera, Gaztelatik eta Espainiako beste herrialde batzuetatik ere erruz etorri zen jendea, eta horrek, ondorio gogorrek ekarri zituen Beasaingo gizarte bizitzara:

- Etorkin erdaldunen uholdea jasan behar izan zuen bere ondorio guztiekin, eta gainera, eskolako, administrazioko eta boterearen hizkuntza ofiziala etorkin gehienek hizkuntza bera, espainiera, zela. Gipuzkoan, 1847an, %94tik gora euskaldun zeudela dio Iztuetak, horietatik %83,33 euskaldun elebakarrak eta %10 baino gehiago elebidunak<sup>4</sup>, eta gainerakoak, euskaraz nahiz espainieraz hitzun txarrak zirela dio.
- Beasaingo ia 1.500 biztanleen gehiengo nagusia, inolako zalantzarik gabe, euskaldun elebakarra zen noski garai hartan eta ehuneko txiki bat elebiduna, etorkinak iristen hasi zirenean. 1911n ordea, Julio Lazurtegik egindako ikerlan baten arabera, "fabrika handian", langileen %58 euskal herritarra zen eta %39 espainiarra baina teknikariak %23 soilik ziren euskal herritarrak.<sup>5</sup>

4 Ehun mila euskaldun elebakar ematen ditu ehun eta hogei mila biztanletik eta gainerakoen erdiak baino gehiago elebidunak direla aipatzen du. 1845erako Gipuzkoako Probintziak izenarekin Batzar Nagusietarako prestatutako txostena da (Iztueta, 1847, V. liburukia). Aranburu eta Intzaren II. liburukian, (14. or.), 135.838 biztanle azaltzen dira 1925ean eta 162.547 biztanle 1860an. Ez da ahaztu behar, 1833-39 bitartean I. Karlista Gerra izan zela eta biztanlegoak beherakada izan zuela. Gainera, tarteka izurriteak ere izan ziren, beraz, Iztuetaren haztamurkako zifra ez da txarra, ez eta aipatzen duen euskaldunen proportzioa ere. Gero, ostera, 1860ra bitartean berriro ere bertako biztanlegoak igotzen jarraitu zuen.

5 Ikerketa horren aipamena iturri honetan ageri da: EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: Jesus Larrañaga. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zt.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 17. or.

- Herriaren eraldaketa. 182 baserri eta 282 etxebizitza zituen orduko Beasainek XIX. mendearen erdi aldera eta Kale Nagusian, Andre Mari kalean eta errepede nagusiaren ertzetan soilik zituen han hemenka kale etxe batzuek. Trenbideak eta CAFek eraginda, XIX. mendearen amaieran eta batez ere XX. mendearen hasieran eraiki ziren J. M. Iturriotz eta J. M. Arana kaleetan lehenengo kale-etxe handiak, 4-5 oinekoak eta bloke gisakoak, eta gehien bat erdaldunez bete ziren, Beasaingo kale apurrak erabat erdaldunduz.
- Gizartean talkak, borrokak eta abar ere ugaltu egin ziren. Familian entzuna dut garai hartan, Beasainen zeuden taberna gutxitako giroa tentsio handikoa izan ohi zela euskaldunentzat. Beren herrian bizi izanik, arrotz etorri berriek espainiera ez zen besterik ez zutela entzun nahi izaten eta eztabaidak eta borrokak ere izan ohi zirela. Gehiagotan ere izango ziren halamoduzkoak, baina, behin behintzat, haietako batzuek, labanak erabiltzeko ohitura zutenak, erronka jotzen ari omen ziren egungo Bideluze plaza inguruan zen orduko taberna batean, bertan suertatu ziren euskaldun batzuei borrokara deituz. Halako batean, lepotik gora eginda zegoen beizamar batek, soinean zeukan espartina baten sokak kolpean etenda espartina eskuan hartu eta aurre egin omen zion harroen zebilenari eta esku zarta batez espartinaz jo omen zuen labana zeukan eskuan labana espartinan sartuta geldituz. Handik aurrera ukondoka lurreratu omen zuen eta egun batzuetarako errespetu apur bat jarri. Giro hura ez zen izango noski oso gozoa ordura arte herrian lagunarte euskaldunean arrunt eta lasai ibiltzen zirenentzat.
- 1857ko Moyano legetik hasita ezarritako espainierazko derrigorrezko eskolak, lehendik ere espainieraz funtzionatzen zuen administrazioak lagunduta, herriaren erdalduntze lasterra eta bortitza ekarri zuen.
- Canovasen agintepean 1876tik aurrera, batetik, muga Ebrotik Iruna aldatu zuten eta, bestetik, derrigorrezko soldaduska ezarri, beraz, mutil guztiek (kupertik libratuek edota diruz erosita kanpo utziek salbu), Espainiako armadan derrigorrez espainieraz (tartean euskaldun elebakar

askok) jardun behar izan zuten (haietako askok Marokoko eta Kubako gerretan gainera) eta horrek mutil guztiak derrigorrez eta bortxaz lehenbailehen espainiera nola hala ikasi eta erabiltzera behartu zituen. Gero horrek, herriko lantegi berri espainieradunetan derrigorrezko jarraipena izan zuen askorentzat ondorengo kasuan bezala

- Jatorrizko biztanle euskaldunak, beren betiko ingurumenetik baztertuak izan ziren, alboetako eta mendialdeko auzo eta baserrietara mugatuak, eta kaletik hurbil bizi ziren baserrietakoak bereziki, beren inguruko gizarte euskalduna galdu eta erdalduntze-prozesu lasterrean sartu ziren. Adibide moduan Joxe Manuel Azurmendik (Beasain, 1923) kontatua oso esanguratsua da.<sup>6</sup>
- Ordura arteko herri bizitzako ohitura asko zeharo aldatzen hasi ziren. Esate baterako erlijioaren praktika arlokoak, usadio eta sinesteen mundukoak, ospakizunak, ohiturak, jaiak eta festak, musika, dantzak, etab. Fabriketan oso baldintza gogorretan lan egiten zuen langileria bildu eta pilatu zen eta elkarbizitza presio handikoa izaten hasi zen.



Muturbeltz egunean Iñaki Perurena gaur herri-kirol diren jokoen jatorria azaltzen (2014-09-27an).

**2.Lana eta ekonomia.** Aurrerapen itxurako lanbideak, lanaren eta ekonomiaren mugimendu berriak sortu arren, trenbideak berak eta haren ondorioz sortu zen industria mugimenduak, lantoki mota berriak ekarri zituen gizartera: besteren kontura soldatapean era masifikatuan eta etxetik kanpo zegoen toki batean lan egitekoak alegia.

<sup>6</sup> Martorena baserria egungo Erretore etxearen ondoan izan omen zen. Joxe Manuel Azurmendik Memoria historikoaren arloan egindako elkarrizketan adierazia duenez, bere aita zena Martorena baserrikoa omen zen, baina CAFen ibili omen zen lanean XX. mendearen hasieran. Euskaldun gisa hainbesterainoko mesprezuak eta destainak jaso omen zituen lantegian garai hartan, berak, "aurrerabiderako" euskarak ezertarako ez zuela balio sinetsi eta bere etxean, zituen zazpi alabekin eta semearekin, euskaraz egin zezaten inolako ahaleginirik ez omen zuen egin eta espainiera ikastera eta jo eta ke erabiltzera bultzatu omen zituen. Ondorioa: Seme alaba gehienek euskara galdu egin zutela eta zerbait gorde zutenek ere, bere kasua adibidez, zailtasun handiak izan dituztela gero bizitza osoan zehar hitz egiteko, eta aitortua duenez, geroztik beren hizkuntza ez dute inoiz ondo berreskuratu ahal izan.

Ordura arte, baziren nagusiak eta morroiak nahiz neskameak edo zerbitzariak, baina jarduerak beste era batekoak ziren. Baserritarrak nagusiki "autonomoak" ziren, nahiz eta tartean morroi eta neskame gutxi batzuek ere izan. Baina neskame morroi kontu hori, baserri arruntetan baino gehiago izaten zen jauntxoek etxeetan.

Elkarlan eta auzolan asko egiten zen. Merkataritza eta zerbitzuak txikiak eta urriak ziren eta artisau autonomoak ere asko ziren. Fabrikak, aldiz, soldatapeko lan masifikatua ekarri zuen, kapitalak ezarritako eritmoetan gogor eta lanaldi luzeetan jardutea, fabrika

barruan astolan asko egitea eta hartara zihoan bertako langileak ere, etorkin gehienek bezalaxe, oso maila apaleko lanetan jarduten zuen. Aginpidea jende arrotzak zuen, kanpotik ikasita etorriek eta bertako jauntxo erdalzaleek nagusiki, espainieraz soilik egiten zuten ikasi gehienek eta giro horretan bertako euskaldunentzako giza harremanak oso gogorrak gertatu ziren. Hori geroago ere errepikatu zen Monarkia urteetan nahiz Errepublikara garaian edota Primo de Riveraren eta Francoren diktaduretan. Agian Errepublikaren aro horretan nabarmendu ziren rexuak eta protestak ozenen eta hori ezin jasanik egin zuten 1936ko altxamendu militarra eta horrek ekarri zuen ondorengo 40 urteko diktadura.

Muturbeltz egunean Iñaki Perurena gaur herri-kirol diren jokoen jatorria azaltzen (2014-09-27an).

Jendea dirua ikusten hasi zen baina diru hura irabaztea oso gogorra zitzaion eta diru harekin bizitzea ere ez zen batere eroso, are gutxiago familia ugariak ziren etxeetan, bereziki orduko kaleko etxebizitza ziztrinetan. Alde horretatik, nagusiki elikagaiei begira egindako nekazaritzako ekonomia, agian samurragoa zatekeen garai

hartan bizirauteko (zer-jana ziurtatzea) eta hori gero, 1939tik aurrerako errazionamendu garaian ongi frogatu zen. Kanean lau hormen erdian bizi ziren familia ugariak, maiz jo ohi zuten gertuko baserrietara jan bila, batzuetan lanean zerbait laguntzearen truk eta beste batzuetan zegoen lekutik ahal zutena hartuz



Sagardo upela bere berariazko gurdian (2014-09-27an).

eta horrek ere iskanbila bat baino gehiago sortu zuen, bai orduan eta baita 1936ko gerra ondorengo urteetan ere baserrietarren eta hainbat kaletarren artean.

Gehiago ez luzatzeko eta aipatutako atalek zerbait argitu dutelakoan, esan, trenbideak eta harekin bateratsu iritsitako industrializazioak iraultza bortitza ekarri zutela Beasaina eta Euskal Herrira. Aurrerapena eta teknika bai, baina eraldaketa bortitza ere bai. Dirua eta merkataritza nahiz zerbitzu berriak, bai, baina

irabazien banaketa oso desberdina ere bai, gutxi batzuek asko aberastuz eta gehiengo handi bat kale berrietako etxeetan pilatuta edota baserri zaharkituetan eskasian biziz. Jauntxo berri erdaldunen kultura burges erdalduna bai, baina bertako betiko herritar euskaldunak kaletik ia desagertzea ere bai, edota kanean etorri berrien hizkuntzan eta ohituretan menderatuta bizi beharra ere bai, eta bertakoen usadioak eta kultura ohiturak ezin garatua ere bai.

Hemendik aurrera ere, Mutur beltz eguna finkatu eta urtetik urtera errotzen joatea nahi dute nonbait Beasaingo Udalekoek eta beste askok eta Egitasmo horrekin, herriko eragile

desberdinak harremanetan jartzea eta kultur sarea sendotzea. Hori dena berez ez dago gaizki, baina orduko herritarrei ekarri zizkien onurak adina, eraman zizkienak eta galdutakoak edota lortu beharrekoak eta lortu gabeak ere, oroitu beharko genituzke. Trena, festa eta trikitia izan dira festa horretako protagonista nagusiak eta jolasak, bertso desafioa, sagardoa, herri kirolak, kontakizunak, hitzaldiak, erakusketak, herri afaria eta beste hainbat ekintza ere antolatu dira lehenengo edizioan. Beharrezkoa iruditzen zait ondorengo urteetako hitzaldietan eta beste ekintza batzuetan trenaren etorrerak eramandakoak ere aipatzea, hizkuntzaren galera, bortxa, plaza eta kale euskaldunen galera, etab. Bestela hura dena festa eta folklore faltsu moduan salduko da eta historia hori baino garratzagoa eta latzagoa izan zen Beasaingo gizarte euskaldun harentzako eta hori bere gordintasunean ezagutarazi beharra dago.

Loinatz jaiak ondo igaro eta ospatzerik ez dutenak ere izan gogoan.

ANDONI SARRIEGI ESKISABEL

anzizar  
taberna

igartza oleta 8 - beasain - gipuzkoa - tel: 943 884 317

# Beasain hace 400 años

Hace 400 años Beasain sale de la jurisdicción de Villafranca y en esa época el territorio no es como lo conocemos en la actualidad pues dos villas, Gudugarreta (1881) y Astigarreta (1927), se anexionaron a Beasain, asimismo el concejo de Arriaran pasó a formar parte de Beasain en 1928. El tema es muy extenso para explicarlo en este artículo en el que me voy a limitar a describir el contorno de Astigarreta.

## Mugarris del Pueblo de Astigarreta

Si hay un sitio donde se puede divisar buena parte del Goierri, ése es Astigarreta, se trata de uno de los paisajes más hermosos para ver el amanecer y el ocaso del sol contemplando el Txindoki.

La historia de Astigarreta ya ha sido contada en uno de los tomos de Beasaingo Paperak. En este artículo pretendo divulgar mi investigación sobre los mugarris de Astigarreta.

Astigarreta estuvo hasta 1615 anexionada a Segura pero jurisdiccionalmente y no territorialmente. Hay un caso donde Villafranca y Segura pleitean sobre su jurisdicción, el documento data del 13 de noviembre de 1461 y se encuentra en el archivo municipal de Beasain. En ese documento hay una escritura de concordia por la diferencia de las jurisdicciones entre Villafranca y Segura, donde se indica que es la regata entre las casas de Herloeta y Aguirre chipi donde se encontraba el límite del término entre lo que hoy conocemos como Astigarreta y el barrio de Garín (Beasain).

Hay distintas actas de amojonamientos de Astigarreta que datan de 1615, 1871 y 1889.

Cuando se hace el acta de desanexión en

1615, los límites de Astigarreta con Beasain se sitúan en un lugar conocido como Zumiscola, cerca de la ermita de San Gregorio donde nace la Erreka Aundi. Los pobladores de Astigarreta de esa época sostienen delante del Juez que ése no era el sitio, mostrando de esta manera su desacuerdo. Desconozco las razones por las que Beasain defendía ese lugar como límite, pero está claro que en esos momentos los montes eran indivisos y eran utilizados por las villas de Beasain, Astigarreta y Gudugarreta, pues hay documentos del año 1586 (Archivo Municipal de Beasain (A515-11) donde se constata que se utilizan conjuntamente. En 1620 Beasain, Astigarreta y Gudugarreta tienen que vender esos montes para pagar las desanexiones de Beasain de Villafranca y Astigarreta y Gudugarreta de Segura.

Cuando se haga un estudio en profundidad sobre los terrenos comunales de Beasain en esa época nos dará una mayor información. En un documento de 1617, se dice que el rey al otorgar el título de villa a Beasain envía junto a un juez a un funcionario de hacienda (Pedro Rodríguez) para indagar si la villa puede pagar 25 ducados por cada vecino, asimismo conocer las propiedades que poseen y los recursos con los que van a pagar. Ese funcionario les dio autorización para proceder a la venta de los terrenos indivisos.

